Hoy día MEI está presente en Arabia Saudí gestionando cuatro centros en los que se prevé una importante evolución del número de alumnos, estimándose según las previsiones de la licitación, contar con aproximadamente 7.000 en un plazo de cinco años.

# "VIDAS PARALELAS"

Recientemente he visitado Mondragón y he conocido de cerca la Universidad y algunas de las empresas de la propia Corporación. No puedo sino agradecer la apertura que han tenido todos sus directivos para mostrarme su experiencia en todos sus detalles y para responder a mis preguntas e inquietudes. Además de la ya legendaria hospitalidad y generosidad de los vascos para atender a quienes tiene el privilegio de ser sus huéspedes. Vivimos y trabajamos en contextos diferentes; nosotros en Bogotá, una ciudad de nueve millones de habitantes, con muchísima competencia en el ámbito de la educación, pero también con muchos desafíos y necesidades por atender. A la vez, con logros importantes y una gran satisfacción por el camino recorrido hasta ahora. Prueba de ello el hecho de que en 2008 la Unipanamericana tenía 3.500 estudiantes, un número modesto siendo entonces una universidad pequeña.

Hoy en día tenemos casi nueve mil estudiantes, prácticamente triplicando el número de alumnos en nuestra organización. Este aumento considerable se debe principalmente a dos razones: por un lado, el gancho y el arraigo que tiene la marca Compensar en nuestra sociedad y su natural influencia en la operación de nuestra Universidad; por otro lado, por lo que ha significado la alianza con Mondragon Unibertsitatea, el conocer de cerca su modelo de integración universidad – empresa, y las implicaciones que de ello se derivan como el diseño curricular por competencias, las prácticas empresariales, y los proyectos integradores en la formación de los estudiantes, entre otros. Una alianza que ilusiona a todos los que trabajamos en Unipanamericana, que ya nos ha permitido empezar a andar un caminoi en la dirección deseada, pero que también sigue siendo un reto y un desafío que nos anima a seguir trabajando con ahínco de cara al futuro.



**Camilo Gaitán**
Rector de la Universidad unipanamericana

MU y la Unipanamericana sellan así una vida que tiene similitudes, y que han desarrollado en paralelo. Compensar nació a finales de los años 70 en Bogotá, en el marco de un grupo empresarial que se llamaba el Grupo Social, y tiene muchas similitudes y coincidencias desde su creación con el nacimiento de la Corporación MONDRAGON.

Compensar fue creado por un sacerdote español a comienzos del siglo XX, en el 1.900, que fue a Colombia y creó un Circulo de Obreros, una especie de Caja de Ahorros de los obreros, que después se llamo Caja Social de Ahorros y que cimentó un grupo empresarial muy importante en Colombia, y a la sombra de la cual nació y creció Compensar. Con esta filosofía, Compensar decidió que quería introducirse en el tema de la educación, como socio de excelencia de las empresas en su desarrollo de competitividad y productividad. En definitiva, allí como aquí, las organizaciones no han querido limitarse únicamente a aspirar al bien común sino a promoverlo decididamente a través de proyectos productivos exitosos cuyo motor es la educación pertinente, de calidad e incluyente para todos aquellos que quieran formarse en el marco de este proyecto educativo – productivo.

# FORMAZIO KOOPERATIBO SAIOAK ULMA CYE-KO BAZKIDEEKIN



ULMA CYE S. KOOP. ELKARTEKO BAZKIDEAK FORMAZIO KOOPERATIBOKO SAIOAK JASOTZEN ARI DIRA. PASA DEN MAIATZEAN HASI ZIREN SAIO HORIEK ETA ABENDURA ARTE IRAUNGO DUTE.

Guztira 498 bazkidek hartuko dute parte formazio-saio hauetan; Oñatiko eta gainerako ordezkaritza guztietako bazkide denek, alegia. Coruña, Mallorca, Bartzelona, Granada, Las Palmas, Ajofrin, Goiain eta Oñatiko bazkideek hartuko dute parte formazio kooperatibo hauetan.

Formazio-saioak Otalora Zuzendari eta Kooperatiba Garapenerako zentroan izango dira eta astero-astero 20 bazkideko talde batek hartuko du parte berauetan, txandaka. Otalora formazio-zentroko eta Lanki ikertegiko kideak arituko dira saio hauek zuzentzen, eta eurekin batera kooperatibako Kontseilu Errektoreko kideak izango dira formazio-saioetan.

Zer da, baina, formazio-saio hauekin lortu gura dena? Asmoa argia da: balio eta egiteko modu kooperatiboak sustatzea. Asmo hori gauzatze aldera, eduki jakin batzuk eta zenbait hausnarketa-ariketa prestatu dira: nola Ulmako hala Mondragoneko kooperatibismoaren jatorri historikoen inguruko informazioa batetik, kooperatibismoak oinarrian dituen balio eta kontzeptuei buruzko azalpenak bestetik, bilakaera historikoaren inguruko hausnarketa hurrena, eta, horiez gai, beste zenbait gai, hala nola printzipio kooperatiboen eta kooperatibek gaur egun dituzten erronka nagusien inguruko gogoeta, kooperatibak eta bazkideen parte-hartzea edota kooperatiben eta gizarte-konpromisoaren egungo egoerari buruzko hausnarketa, besteak beste.

### LANKI ETA OTALORA ELKARLANEAN

Orotara 8 orduko 30 saio izango dira, eta bazkideek kooperatibismoaren oinarrizko balioez eta kooperatiben errealitateaz hausnartzeko balioko dute.

Saiootan erabiltzen den metodologiari dagokionez, partaideen esku-hartzean oinarritzen da. Batetik, kooperatibismoaren oinarrizko balioetan sakonduko da; bestetik, partaideek euren errealitate zehatzaz hausnartzeko ariketak egingo dituzte.

Formazioaz, esandako moduan, Otalora zuzendari eta kooperatiba garapenerako zentroko eta Lankiko kideak arduratuko dira. Lanki ikertegia 2000. urtean sortu zen HUHEZIn Arrasateko Kooperatiba Esperientzia aztertzeko xedez, eta horretan dihardu egun ere.

> 8 orduko 30 saio izango dira, ULMAko bazkideek kooperatibismoaren oinarrizko balioez eta kooperatiben errealitateaz hausnar dezaten

## MU-KO IKASLEAK GARAILE EUSPOT-EN

Garazi Ayesta, Jon Campo, Nerea Gil, Ibai Iregi eta Eneko Sagardoy Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasleak izan dira Euspot euskarazko spot lehiaketako irabazle nagusiak. Batetik, Yago Mateo eta Heidi Otaduirekin batera, irabazi dute, ex aequo, lehiaketaren sari nagusia. Bestetik, MUko ikasleei zuzendutako lanik onenaren saria ere jaso dute. Ikusleen saria ere Olaia Iraola, Leire Bergara, Garazi Lazkano eta Elena Canas MUko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleek irabazi dute.

## HITZARMENA ALTZARI ENPRESEKIN

Hazitegi ikertaldeak akordioa lortu du Haur Hezkuntzarako altzari eta materialak sortzen dituzten Almenara eta Ergokids enpresekin. Akordio horri esker, Hazitegik ikergai dituen ikastetxeetan erabili ahal izango ditu bi enpresa horiek Haur Hezkuntzako jolastokietarako sortutako zenbait material. Ekimena kokatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako *Haur Hezkuntzako Kanpo Espazioa Ikaskuntzarako Ingurune* proiektuaren baitan.

# MU-K PRODUKTU ETA ZERBITZUEN DISEINU ESTRATEGIKO-KO MASTERRA BILBON ESKAINIKO DU

PRODUKTU ETA ZERBITZUEN DISEINU ESTRATEGIKO-KO MASTERRA IRAILETIK AURRERA BILBON ERE ESKAINIKO DA ETA GRADUATU EZBERDINEI ZUZENDUA EGONGO DA: INGENIARITZAK, ARKITEKTURA, ENPRESAGINTZA ETA MARKETINA.



Ingeniaritza, arkitektura, enpresen administrazioa eta zuzendaritzan graduatuei, lidergo ekintzailea eta berrikuntza graduatuei eta marketin titulu dunei zuzenduriko masterra da Bilbon eskainiko den hau; beraien formazioa garatu eta haien bide profesionala diseinu alorrera bideratu nahi duten ikasleei zuzendutakoa, hain justu.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak eskainitako masterra da eta bi urteko iraupena du. Lau urtez Arrasateko campusean eskainitako masterra da, eta hurrengo urtean lehen aldiz Bilboko Bilbao Berrikuntza Faktorian ere eskainiko da. Masterrean produktu zein zerbitzu berrien berrikuntzarako diseinu erreminten erabilera irakasten da. Alde batetik, produktu baten diseinu eta garapen aurreratua *(design the thing right)* ingelesez azalduz, eta produktu eta zerbitzuen diseinu estrategikoa *(design the right thing)* bestetik. Masterraren bigarren urtean ikasleak urtebeteko proiektua egingo du bertako edo nazioarteko enpresa batean.

Masterrean produktu zein zerbitzu berrien berrikuntzarako diseinu erreminten erabilera irakasten da.

Profil profesionala bezeroan zentratutako balio proposamenak diseinatzen, negozio aukerak produktu eta zerbitzuetan materializatzen eta bezeroarekin diseinu prozesuak bideratzen espezializatuko da besteak beste.

Master programaren bereizgarritasunetako batzuk proiektuetan oinarritutako formakuntza izatea, enpresa errealekin elkarlan estu bat izanik eta zentro internazionalekin kolaboratuz lan egitea dira. Bestalde, masterrean nazioarteko zein Europa mailako diseinu profesionalak kolaboratzen dute sjardunaldi zein *workshop*ak antolatuz.

Ikasleak jasotako formakuntzan klase presentzialez gain, enpresekin seihileko proiektuak zein *workshop*ak egiten dira elkarlaneanarituz. Horrela ikasleak enpresako errealitatearekin erlazio zuzena du lan mundura irten aurretik. Honetaz gain, urtean behin ikasle taldeak diseinuan erreferente den nazioarteko kongresu baten parte hartzen du.

GEP GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

# ROBOTEK, EN LA FIRST TECH CALLENGE 2014




Segundo año de participación de EPS con su equipo ROBOTEK, formado por once alumnos de ciclos formativos de Grados Superior de Formación Profesional, de las titulaciones de Diseño en Fabricación Mecánica, Robótica y Automatización Industrial, y Sistemas Electrotécnicos y Automatizados, junto a cuatro tutores. First Tech Challenge (FTC) es la categoría superior de la conocida First Lego League (FLL).

El equipo de EPS está patrocinado por Danobat Group, Mondragon Assembly, Fagor Arrasate, Fagor Automation, Corporación MONDRAGON, y ha contado con la colaboración de la Viceconsejería de Formación Profesional del Gobierno Vasco.

# LEINNEKO IKASLEAK SHANGHAI-N HEZKUNTZA-BERRIKUNTZAKO ADITUEKIN




MAIATZAREN 12AN, TEDXSHANGHAISALON-A EGIN ZUTEN, SMASH KOOPERATIBAK ANTOLATUTA. IZAN ERE EUREN PROIEKTUA SHANGHAIN ARI DIRA EGITEN. EKITALDIA TONGJI UNIVERSITY-KO SINO-FINNISH CENTER-EN EGIN ZUTEN, FINLANDIAKO AALTO UNIBERTSITATEAREN ETA TXINAKO TONGJI UNIVERSITY UNIBERTSITATEAREN ARTEKO CO-WORKING GUNEAN

TEDx-aren gaia “Berrikuntza Hezkuntzan” (Education Disruptive Innovation) izan zen eta Europa eta Asiako hezkuntza-berrikuntzako pertsona erreferenteak erakartzea zuen helburu. Ekintzailetzako metodologia berriak azalduz eta norbere esperientzia TEDx "Education Disruptive Innovation" gaiarekin lotuz, Nazioarteko hizlariek hezkuntzaren arloan dauden azken joerak eta Txinan ezartzen ari diren teknologia berriak eman zituzten ezagutzera.

Smashek hezkuntza etorkizun hoberako giltza delakoan antolatu du ekitaldia. “Egungo hezkuntza-sistema hiltzear dago eta, ikaskuntzaren aro berri honetan, berritzeko beharra dago oro har”, diote Laura Estankonak eta Andoni Olasok, TEDx-eko eta Smash-eko antolaketa-taldeko kideek.

## BACKGROUND

Ekintzailez osatutako talde eta enpresa horrek duela hiru urte jarri zuen abian Smash kooperatiba. Hala, kooperatiba gisa mundu osoko proiektuak garatzen dituzte, unibertsitate-ikasketen barruan, eta ikasteko modu ezberdinak daudela konturatu dira.

“Erabateko aldaketa izan zen, mundu osoko hezkuntzaren egoera ikertzera bultzatu gintuena. Horrek egungo errealitatea hobetzen laguntzeko prest egotea eskatzen zuen", esan digu Laurak.

“Hiru urte horietan gai izan gara Finlandia, AEB, India eta Txinara bidaiatzeko, eta kultura oso ezberdinak ezagutu ditugu, bertako jendearekin elkarlanean, mentalitate berria hezkuntzarantz hedatzeko asmoz. Hori guztia, modu oso zehatzean egin dugu, izan ere aurten ekintzailetza-tailerrak egin ditugu haur txikien eskoletan. Ikuspegidun hezkuntza bideragarria dela pentsarazi digu horrek”, gaineratu du Andonik.

Diotenez, esperientzia horiek erreferente hartuta eta aberasgarritzat jota, honako honetaz konturatu dira: beren helburua hezkuntzari buruz pentsatzeko modu berri hori zabaltzea dela, baita pertsonak gaitzea ere, aurrerapauso bat eman eta ikuspegia aldatzeko.

# MIK FIRMA UN ACUERDO CON PROSPEKTIKER PARA FORMAR PARTE DE MILLENIUM

El Centro de Investigación en Gestión Especializado en Innovación Organizacional y Social MIK, integrado en Mondragon Unibertsitatea, y Prospektiker (nodo del Proyecto mundial Millennium), han firmado un acuerdo de colaboración mediante el que MIK pasa a formar parte del nodo español del Proyecto Millenium a través de Prospektiker. Mediante el acuerdo, que han rubricado el director del MIK, David Sánchez y su homólogo en Prospektiker, Ibon Zugazti, MIK establece un contacto permanente con el conjunto de miembros de la red del Proyecto Millennium a nivel mundial para promover proyectos de investigación y otras actividades de colaboración (eventos, seminarios, intercambios, etc) en el ámbito del futuro de la innovación organizacional y social.

El Proyecto Millennium y su comité de expertos global fundado en 1996 que vincula internacionalmente expertos de corporaciones, universidades, ONGs, agencias de la ONU y gobiernos envía más de 50 nodos alrededor del mundo en un proceso participativo y que explora cómo hacer frente a los retos globales y construir así un futuro mejor, a través del uso de herramientas de prospectiva.

# EN MARCHA EL PROGRAMA DE ACELERACIÓN DE STARTUPS DE ALIMENTACIÓN A NIVEL MUNDIAL

EL 29 DE MAYO SE ABRIÓ EL PLAZO DE SOLICITUDES PARA EL PROGRAMA DE CINCO SEMANAS QUE DARÁ COMIENZO EL 1 DE SEPTIEMBRE




DIG EAT ALL es una idea original de ALTAZOR VENTURES llevada a cabo con la colaboración del Basque Culinary Center, Mapamundi y Mugaritz. Se trata del primer programa de aceleración vertical en el espacio del *Food & Tech* y surge del convencimiento de que numerosas y valiosas sinergias y oportunidades pueden surgir de esta experiencia.

El proyecto DIG EAT ALL cuenta también con la colaboración de Fomento de San Sebastián. En su primera edición, hasta 10 *startups* del *Food & Tech* se concentrarán en el Basque Culinary Center durante 5 semanas, disfrutando de un intenso y completo programa en el que, dirigidos por numerosos mentores, llevarán sus ideas y startups a nuevos niveles de desarrollo.

Desde el 29 de mayo hasta el 20 de junio estuvo abierto el plazo de solicitudes para participar en el programa para startups de todos los continentes y de cualquier ámbito dentro de la industria agroalimentaria. Los candidatos seleccionados serán anunciados a finales de junio o principios de julio, aproximadamente dos meses antes del comienzo del programa el 1 de septiembre.

## DETALLES DEL PROGRAMA DIG EAT ALL FAST TRACK

Los equipos seleccionados para el programa de aceleración disfrutarán de una oportunidad única y obtendrán importantes ventajas competitivas gracias a los siguientes factores:

- No hay necesidad de ceder capital.
- Hasta 250.000 euros de financiación para los mejores equipos.
- Apoyo continuo por parte de chefs de prestigio internacional, expertos en gastronomía, innovadores de la industria agroalimentaria, ejecutivos de
- Multinacionales alimentarias, inversores de capital riesgo y emprendedores.
- Apoyo de Mapamundi. Oportunidad de disfrutar de la experiencia de ejecutivos de más de 30 países.
- Soporte en innovación por parte de Mugaritz.
- Acceso a los laboratorios de pruebas, centros de investigación y expertos en *Food & Tech* del Basque Culinary Center.
- Espacio de trabajo: zona exclusiva para DIG EAT ALL *Fast Track* en el Basque Culinary Center en San Sebastián. Todo lo necesario para impulsar las *startups* y los proyectos de innovación en un espacio privilegiado.
- Apoyo tecnológico.
- Eventos de *Networking*.
- Demo Day con inversores.
- Nominación de los mejores equipos a los DIG EAT ALL *Global Awards*.

## SOBRE FOOD & TECH

Las startups del ámbito Food & Tech están en el foco de atención en todo el mundo. Los consumidores están preparados para adoptar nuevas tecnologías que transformen sus vidas, incluyendo su relación con la comida. Innovación, a través de startups de Food & Tech, está siendo financiada en todos los continentes para potenciarla y adaptarla a nuevas aplicaciones tecnológicas. Desde alimentos de nueva generación, pasando por servicios de envío de comida y hasta aplicaciones para reducir la basura y los residuos generados, la revolución de *Food & Tech* ya está aquí. A lo largo de los últimos cinco años, la financiación global en este ámbito ha crecido un espectacular 51% anual. Solo en EEUU, más de 2.800 millones de dólares han sido invertidos entre 2012 y 2013. Las fusiones y adquisiciones también crecen, no sólo en número (crecimiento anual del 55%) sino también en tamaño, con transacciones como la adquisición por 930 millones de dólares de la empresa de big data The Climate Corp. por Monsanto Co. cobrando empuje. Los mayores fondos corporativos y de capital riesgo como Google Ventures, Intel Capital, Greylock Partners, Accel Partners o Koshla Ventures están convirtiéndose en inversores activos en *startups* de *Food & Tech*.

San Sebastián merece ocupar un lugar destacado en esta revolución global. Con 2 restaurantes en el top 10 de la lista *World's 50 Best Restaurants* desde 2006 y con la mayor concentración mundial de estrellas Michelin per cápita, San Sebastián se está convirtiendo en el Silicon Valley de la industria alimentaria y gastronómica.

## PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA

# "PROFESIONALEK OSO ONDO BALORATZEN DUTE GURE ESKAINTZA"

PROFESIONALAK EUREN FORMAZIOA EGUNERATZEKO ASMOAREKIN BADABILTZA, MU-N ESKAINTZA ZABALA AURKITUKO DUTE. FORMAZIO AITZINDARIA, OINARRI SENDOETAN SOSTENGUA DUENA ETA BETIDANIK ENPRESA ETA ERAKUNDEEKIN LOTURA ESTUA IZAN DUENA ESKURATU AHAL IZANGO DUTE BERTAN.

Mondragon Unibertsitateak Profesionalentzako prestakuntzan eskarmentu handia dauka, eta urtero-urtero 5.300 profesional inguruk parte hartzen dute prestakuntza espezifiko honen baitan antolatzen diren ikastaroetan. Aurten, esaterako, formazio arlo honi 23 mila ordu eskaini dizkiote. Profesionalentzako prestakuntza taldeaz arduratzen direnekin hitz egiteko aukera izan dugu.

**Jo dezagun atzera eta eman diezaiogun begiratua MUren eta enpresa arloaren arteko harremanari. Arlo honek beti izan du lehentasuna MUn, ezta?**

Esan dezakegu MU aintzindaria izan dela profesionalen prestakuntzaren arloan. Urte asko eta eskarmentu handia du gure unibertsitateak eta enpresa zein erakundeei begira lan egitera ohituta gaude. Eta oinarri sendo horiek aintzat hartuta, gaur egun aktibitate honi modu sakonagoan erantzun nahi diogu. Azken batean, indar gehiagorekin ari gara garatzen profesionalentzako prestakuntza gaur egun.

*"Ikastaro asko presentzialak dira, baina baditugu on line formatuan ere. Gaur egungo eskaera eta tendentzietara samur egokitu gara".*

**Azken urteotan profesionalentzako prestakuntza arloak bilakaera dotorea izan du.**

Halaxe da bai, eta lanean jarraitu beharra daukagu datozen urteotan ere hazkundearekin jarraitzeko. Gure eskaintza oso ondo baloratuta dago profesionalen artean eta erreferentzia on horiek indargune bilakatu behar ditugu. Datuei erreparatuz gero, aipatu dezkaegu azken urteotan, urtero-urtero, 5.300 profesionalek parte hartzen dutela mota ezberdinetako ikastaroetan eta urtero 23 mila ordu eskaintzen dizkiogula formazio horri.

**Askotariko eskaintza duzue, ezta?**

Askotarikoa eta kalitatezkoa. Ikastaro asko presentzialak dira, baina baditugu *on line* formatuan ere. Horri gagozkiola argi dago gaur egungo eskaera eta joeretara samur egokitu garela. Gure eskaintzaren parte dira, besteak beste, katalogoan ditugun unibertsitate masterrak, unibertsitate master titulu propioak, hezkuntza graduak *on line*, gradura egokitzapen ikastaroak, aditu ikastaroak eta ikastaro aurreratuak... Oro har sekulako eskaintza dago.

**Fakultatez fakultate errepasatuz gero, zein da eskaintza?**

Mondragon Goi Eskola Politeknikoan, esaterako, honako arlo hauetan eskaintzen ditugu ikastaroak: Antolakuntza industrialean, proiektuen kudeaketan, industri diseinuan, manufacturing arloan, elektronikan eta IKTetan. Basque Culinary Centerren, sukaldearekin zerikusia duten ikastaroez gain, kudeaketa zerikusia duten formazioak daude eta zerbitzuan diharduten profesionalentzat ere eskaintza badago. HUHEZIn hezkuntzan, komunikazioan eta kooperatibagintzan eskaintzen ditugu formazio ikastaroak, eta Enpresagintzan, kudeaketan,



ARGAZKIA: ARTEMAN

ekintzailetasunean, lidergoan eta kooperatibagintzan.

**Gainera, In-Company erako formazioa ere eskaintzen duzue.**

Nabarmentzekoa da In-Company eskaintza. Gure unibertsitateak era naturalean ireki ditu kolaborazio zubiak enpresekin eta joera horrek profesionalentzako propio, enpresan bertan, ikastaroak sortzera eraman gaitu. Eskatzen digun enpresa edo erakundeei neurrira prestatzen dizkiegu ikastaroak.

PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA TALDEA

Arantxa Ozaeta, Gentzane Aldekoa, Jose luis Abaunz, Idoia Calleja, Edurne Galindez eta Jon Altunak osatzen dute

**Eta zein da balorazioa?**

Egia esan, enpresa eta erakundeekin antolatzen ditugun ikastaroak, In-Company delakoak, arrakastatsuak dira. Oso balorazio altua jasotzen dute eta guretzat oso aberasgarriak dira. Gertuko enpresa eta erakundeekin dugun harreman onaren erakusle dira ikastaro mota horiek.

**Etorkizunerako begira berrikuntzarik aurreikusten dituzue?**

Gure ustez dagoeneko ez da nahikoa unibertsitateak gazteak bere bizitza profesionalerako prestatzea, gure ardura askoz handiagoa da. Esango nuke, unibertsitatea gazte horien eta profesionalen bidelagun izan behar dela. Etorkizunean oso garrantzitsua izango da profesionalei laguntzea garatzen euren bizitza profesionalean behar dituzten ezagutza horiek. Geroago eta gehiago, profesionalek formazio saioak eskatzen dituzte eta eskaera horien aurrean erantzunkizunez jokatu behar dugu.

GEP

## TITANIO ALEAZIOAK



ION QUINTANA
Analiza las alternativas en el proceso de los componentes de tintanio mediante el sistema CCIM.

Titanio aleazioek ezaugarri erakargarriak dituzte. Halaere, materialaren kostu altuak bere aplikazioak murrizten ditu. Galdaketa prozesuek kostu txikiagoko produktuetara daramate. Hala ere, zaila da aleazio hauek galdaketa prozesu konbentzionalekin urtzea, tenperatura handitan erreaktibotasun handia daukate eta. CCIM prozesua aleazio hauek galdatzeko prozesu eraginkorrena da. Tesi honek CCIM prozesuaren simulazio numeriko eta prozesu honen bidez titaniozko osagaiak ekoizteko modua jorratzen ditu.

GEP

## SISTEMAS ELECTRÓNICOS DRIVE CLÁSICOS



ALAIN SÁNCHEZ
Tesi hau, potentzia handiko eta tentsio ertaineko bihurgailu elektroniko topologia, modulazio eta kontrolean oinarritutako ikerketa da.

El uso de sistemas electrónicos drive clásicos hace que muchos de estos orientados hacia la alta potencia y altas velocidades no sean competitivos en eficiencia, espacio y coste. Una solución direct drive (sin reductora) mejora todos estos aspectos sustancialmente. Esta tesis se centra en el estudio, análisis y desarrollo de topologías de convertidores electrónicos de alta potencia en media tensión, sus modulaciones y control para llegar a una alta frecuencia fundamental de salida.

GEP

## ELECTROSPINNING DE BIO-NANOCOMPOSITES



CHRISTIAN GÓMEZ
Medikuntza arlora bideratutako ikerketa egin du Christian Gómezek.

La Ingeniería de Tejidos es una ciencia multidisciplinar que estudia la curación de enfermedades crónicas y/o traumatológicas que no pueden ser solventadas mediante técnicas convencionales. En esta tesis se desarrolla un nuevo bio-nanocomposite peg-POSS/PLLA destinado a la fabricación de scaffolds mediante electrospinning, para aplicaciones en crecimiento celular y regeneración de cartílago. Los scaffolds se han caracterizado mediante DSC, TGA, IR, y SEM, así como su biocompatibilidad y resistencia a la biodegradación.

GEP

## ERRETXINA FURANIKOEN AZTERKETA



UNAI LÓPEZ
La fuente natural del trabajo de López es la resina furánica. Una resina fabricada a partir de Alcohol Furfurilico y polímeros. Fenólicos..

Tesi honetan iturri natural eta berriztagarriko erretxina furanikoen azterketa burutu da, zeinak mikrouhin teknologiaren bitartez material konposatuen garapenean erabili diren. Alde batetik, erretxin furanikoa aztertu da, karakterizazio kimiko eta erreakzio mekanismoen azterketa zinetikoaren bitartez. Bestalde, basalto zuntzez indartutako erretxin furanikoko matrizedun material konposatuak fabrikatu dira, energi baxuko talka portaera eta suaren aurkako portaera ebaluatzeko.

GEP

## ALTZAIRUZKO PIEZAK



JOKIN LOZARES
El trabajo de Jokin Lozares tiene como objetivo analizar piezas de acero.

Mondragon Unibertsitateko ekoizpen laborategian beren beregi garatu eta ezarri den forja erdisolidorako zelulan gaur egun berotako forjaz lau pausotan ekoitzitako 2.8 kg-ko altzairuzko piezak tixoformaketa bidez soberakinik gabe eta pauso bakarrean ekoiztea lortu da. Emaitzek %20ko material aurrezpenak erakusten dituzte eta formaketa indarren gutxitze nabarmena, 2500 t-ko prentsa bat erabiltzetik 400 t-ko bat erabiltzera. Hau guztia, gainera, forjatutako piezen ezaugarri mekaniko berdinak lortuz.

GEP

## GARRAIO BERTIKALA



MAITE BEAMURGIA
Ha trabajado sobre un proyecto de transporte vertical, y los sistemas de control de los mismos.

Garraio bertikalean, igogailu bat baino gehiago dituen eraikuntza batean, kontrol sistema bat beharrezkoa da kanpoko deiak igogailu bakoitzari egokitzeko eta hauen zeregina kontrolatzeko. Tesi honen helburu printzipala, algoritmo genetiko baten garapenean datza, non denbora eta energiaren arabera optimizatzen diren deien egokitzapenak igogailuetan. Bidaiarien informazioa ere erabiltzen da, dei baten ostean bidaiari bakar bat dagoen ustea apurtuz.

IKASLE OHIAK

# MUKIDE TOPAKETAK, ASPALDIKO LAGUNAK BERRIRO ELKARREKIN

MAIATZAREN 24AN ETA 31N, MU-REN IKASLE OHIEN TOPAKETAK EGIN ZIREN ARRASATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN, ENPRESAGINTZAN ETA HUHEZIN. MUKIDE SAREA OSATZEN DUTEN PERTSONEK LAGUN ZAHARRAK BERRIZ IKUSTEKO AUKERA IZAN ZUTEN ETA ASPALDIKO KONTUAK EZ ZIREN FALTA IZAN.



**ENCUENTROS MUKIDE**
La marca MUkide sigue haciendo camino. El 24 y 31 de mayo se celebraron los encuentros de antiguos alumnos de Mondragon Unibertsitatea en las facultades de Enpresagintza (foto), HUHEZI y GEP.

MUkide elkarteak bi helburu ditu, Mondragon Unibertsitatearekin harremana mantendu eta ikaskide izan zirenekin eta beste ikasle ohi guztiekin komunikazio kanala izan daitekeen sarea eta partaidetza guneak sortu. Era berean, gaur egungo ikasleekin ere lankidetza espazioak definitu nahi ditu MUkidek, batez ere, unibertsitateari eta inguruko gizarte eta ekonomia garapenari lagunduz eta, beti ere, Mondragon Unibertsitateko balioak (lankidetza, berrikuntza, partaidetza, gizartearekiko ardura) errespetatuz eta elkarte honetako partaideei balio gehigarria emanez.

Dagoeneko, Mondragon Unibertsitatea osatzen duten fakultateetan ikasitako 8.811 ikasle ohi biltzen dira eta guztiei, MUkidetik ekintza proposamen bat egin nahi zaie elkartearen helburuari jarraituz: webgune propioa, on-line zerbitzuak, aldizkariak, kirol zerbitzuak, liburutegi zerbitzua eta bertako baliabide informatikoen erabilpena, lan-poltsa propioa, MUko instalazioak, finantza zerbitzuak, lehiaketak, konferentziak, hitzaldi eta mahai-inguruak, bisita gidatuak, ospakizunak, *networking* propio eta nazioartekoak, deskontuak, eta abar.

## MUKIDE TOPAKETAK

MUkide sarea indartzeko asmoz, maiatzaren 24an eta 31n topaketak egin zituzten Enpresagintzan, Goi Eskola Politeknikoan eta HUHEZIn. "Aurten lehenengo aldiz abiatu ditugu topaketak eta arrakastatsuak izan dira, nahiz eta zenbait fakultatetan ikasle-ohi gehiago espero genituen". Mondragon Unibertsitatean ikasitakoentzat oso jardunaldi bereziak izan ziren: aspaldiko lagunekin partekatzeko momentuak izan zituzten, eta, era berean, unibertsitatearen instalazio berriak ezagutzeko aukera ere zuten bertaratutakoek.

"Promozio ezberdinetan ikasitako ikasle-ohiek harremanak ez galtzeko ahalegina egiten du MUkidek; izan ere, galdutako harremana berreskuratzea da elkartearen helburuetako bat", adierazi ziguten sustatzaileek.

Topaketetan parte hartu zuten ikasle askok elkarren berririk ez zuten azken hamar urteotan eta sekulako poztasunarekin bizi izan zuten eguna. Gehienentzat topaketena oso ideia ona izan da, errepikatzeko modukoa. Batzuek eta besteek honela erantzun ziguten iritzia eskatuta: "Kontaktua berreskuratzeko balio dute jardunaldiek", "oso ideia ona izan da", "oso polita izan da gaur egungo MU ezagutzea eta giro ederra egon da".

Ikasle garaietako oroitzapenak gogora ekarri, instalazioetan aldaketak ikusi eta oro har erakundearekiko harrotasuna sentitu zuten topaketetara gerturatutako ikasle-ohiek. Aurtengo arrakasta ikusirik, datorren urteko topaketak prestatzen hasi dira dagoeneko.

MUNDUKIDEN PRAKTIKAK EGIN DITUEN MU-KO IKASLEA

# "UNIBERTSITATEAN IKASITAKOA PRAKTIKAN JARTZEN SAIATU NAIZ MUNDUKIDEN"

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IKASLE ASKOK EGITEN DITUZTE PRAKTIKAK MUNDUKIDEN. ASKORENTZAT, ERAKUNDEAK ARRASATEN DUEN EGOITZA IZATEN DA PRAKTIKAK GARATZEKO KOKALEKUA ETA BESTE BATZUK MOZANBIKE, KUBA ETA BRASILGO PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO AUKERA IZATEN DUTE.



Adrian Del Pozo Murillo IKOko hirugarren mailako ikaslea da Arrasateko bulegoan aritu da lanean ikasturte honetan eta egonaldiaz hitz egin digu.

**Zergatik aukeratu zenuen Mundukide praktikaldia burutzeko?**

Lehenik eta behin, irakasleek esaten digute aukera ezberdinak probatzeko eta uste izan nuen komunikazioarekin eta erakundeekin zerikusia izan zezakeen praktikaldi bat oso interesgarria zela niretzat. Gaur egungo gizartean, markak etengabe komunikatzen ari dira eta komunikatzaileon kasuan, edozein lanpostutarako prestatuta egon behar gara. Gainera, Mundukidek praktikak Arrasaten bertan egiteko aukera eskaintzen zidan, eta Gobernuz Kanpoko Erakunde bat izateak ere erakargarriago bilakatu zuen aukera.

**Gobernuz Kanpoko Erakunde baten zein garrantzi du komunikazioaren esparruak?**

Komunikazio ekintzek ezagutarazi egiten zaituzte, eta, beste edozein erakunderentzat bezalaxe, Gobernuz Kanpoko Erakunde batentzat ezinbestekoa da komunikazioaren estrategia lantzea. Elkarteak dituen helburuak, transmititzen dituen balioak, atributuak, marka loturak, egiten duen lana... hori guztia oso argi transmititu behar zaio publikoari. Horretarako makinatxo bat ekimen antolatzen dira, jardunaldiak, aurkezpenak, ikus-entzunezkoak... Internet eta sare sozialak ere ezinbesteko erreminta bilakatu dira komunikazioaren esparruan.

**Zeintzuk dira Gobernuz Kanpoko Erakunde batek trasmititu beharko lituzkeen balioak?**

Nire ustez Gobernuz Kanpoko Erakunde batek erakutsi behar du konfiantzazkoa dela. Pertsonek eta erakundeek elkartearekin bat egin ahal izateko ezinbestekoa da. Hala ere, badaude beste ezaugarri asko konfiantza elikatzen dutenak: profesionaltasuna, gertutasuna, gardentasuna…

**IKOn ikasten ari zarena aplikatu duzu Mundukideko komunikazio lanetan?**

Bai, noski. Unibertsitatean jasotako zenbait ezagutza, teknikoak batez ere, ezinbestekoak dira. Adibidez, kazetaritza, sare sozialak, bideo eta argazki edizioa… Horien gaineko ezagutzarik gabe ezingo nuke ezer egin. Hala ere, praktiketan gauza gehiago ikasten dira, unibertsitatean ikasitakoa praktikan jartzeaz gain, beste ezagutza asko garatzen dira. Hori Mondragon Unibertsitateak badaki eta nahiko presente dauka. Izan ere, MUn praktikak beharrezkoak dira eta ikasketa prozesuan sartzen dira (121 kreditu bete behar dira praktikak gainditzeko).

**ADRIAN DEL POZO**
IKOko hirugarren mailako ikaslea.

**Zelan azalduko zenieke MUko ikasleei zer den eta zer lan egiten duen Mundukidek?**

Mundukideren helburua, herrialde pobretuen garapen sozioekonomikoa indartzea da. Horretarako Arrasateko kooperatibismoak eman duen esperientzia, jakintza eta baliabideak partekatzen ditu. Bestalde, MUko komunikazioko zein beste graduetako ikasleak Mundukidera gerturatzera animatuko nituzke, boluntario moduan, praktikak egitera edo gradu amaierako proiektua egitera. Izan ere, esperientzia oso ona da norberarentzat eta elkarteari laguntzeko modu bikaina da.

# OSASUNAREN II. ASTEA OSPATU DA MONDRAGON UNIBERTSITATEAN



APIRILAREN 7AN OSASUNAREN MUNDUKO EGUNA OSPATU ZEN, ETA HAU APROBETXATUZ, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO KIROL ZERBITZUAK OSASUNAREN II. ASTEA ANTOLATU ZUEN, ASTE OSOA EKINTZA ETA GOMENDIO EZBERDINEZ GIROTUTA.

Apirilaren 7ko astea ezberdina izan da MUn, Kirol Zerbitzuak Osasunaren II. astearen barruan antolatu dituen jarduerak direla eta. MUko Kirol Zerbitzuak azken urteotan bizi-ohitura osasungarrien sustapenerako joera nabarmen bultzatu du eta, bigarren urtez jarraian, Osasunaren Astea antolatu du GEP eta HUHEZI fakultateetan.

Helburu nagusia eguneroko-tasunean bizi-ohitura osasuntsuak barneratzea da; horretarako, izaera ezberdineko ekintzak antolatu ziren.

## EKINTZAK

Batetik, jarduera fisikoa sustatzeko mendi irteera, areto bizikleta saioak, abdominal hipopresiboen saioak, etab. eskaini zitzaizkien ikasle zein langileei.

Bestetik, osasunaren inguruko formazio eta informazio hitzaldiak egin ziren: Lehen Sorospenen inguruko formazio teoriko-praktikoa, desfibriladoreak erabiltzeko formazioa, DAVID SPINE CONCEPT bizkarreko minen prebentzio eta tratamendurako makinen inguruko hitzaldia, eta tentsio arteriala ezagutzeko jarritako postuak.

## GOMENDIOAK

Azkenik, apirilaren 7ko aste horretan zehar, osasunaren zaintzan kontuan hartu beharreko hainbat gomendio zabaldu ziren posta elektroniko bidez. Gainera, fruta banatu eta gosari osasungarriak antolatu ziren fakultateetan.

Jarraian, bizimodu osasuntsu bat jarraitzeko astean zehar zabaldutako hainbat aholku dituzue:

- Zer da elikadura osasungarria? Giza organismo moduan funtzionatzea eta sasoari eutsi eta gaixotasunak ekiditea ahalbidetzen duen elikadura mota da. Elikadura osasuntsu bat lortzeko, denetik eta modu orekatuan jan behar da.
- Gosariaren garrantzia. Gosaria eguneko lehen otordua da, funtsezkoa edozein adinetan. Gosariaren araberakoak izango dira eguneko gainerako otorduak. Gainera, oso lotuta dago pisu egokiarekin eta egun osoko errendimendu fisiko zein mentalarekin.
- Gosarian ezinbestekoak diren elikagaiak. Hiru multzotako jakiak aukeratu behar dira: sasoiko fruta freskoak, koipe gutxiko esnekiak eta zerealak.
- Mediku Azterketak urtero egitea beharrezkoa da. Analitikarekin diabetesa, triglizeridoak eta kolesterola neurtuko dira eta tentsioa hartzean tentsio arteriala ezagutuko dugu. Ondoren, medikuaren aholkua jarraitu behar da.

  Urtero dentistarenera bisita egitea garrantzitsua da. Ahoa digestio aparatuko sarbidea da eta bertan izan daitezkeen infekzio eta bakterioak barnealdera sartu daitezke arazo larriak sortuz.

  Aste-bete baino gehiago irauten duen anomaliarik nabarituz gero, mantxak, konkorrak, minak, afoniak... medikuarenera joatea garrantzitsua da.

MU Kirol Zerbitzuak Osasunaren sustapenean tinko jarraituko du etorkizunean antolatuko diren ekintza ezberdinetan, eta gure aldetik, norbanako bakoitzak dituen bizi-ohiturei erreparatzera gonbidatzen zaituztegu.

### SEGUNDA SEMANA DE LA SALUD

Con motivo del día mundial de la salud, los servicios deportivos de MU organizaron la segunda semana de la salud.

## IRAILA

■ CICLOS FORMATIVOS DE GRADO SUPERIOR
8 de septiembre
- Máster universitario en Dirección Contable y Financiera
- Máster universitario en Marketing Digital
- Máster universitario en Creación y Gestión de Empresas de Turismo Activo

■ HEZKUNTZA GRADUAK ERDI-PRESENTZIALAK
Irailak 22
- Hezkuntzan egokitzapen ikastaroak.
- Hezkuntzan bigarren aipamena.
- Hezkuntza graduak *on line*.

■ UNIBERTSITATE MASTERRAK
Irailak 29
- Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan unibertsitate masterra (Berrimet).
- Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterra (Ekomu).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (BHM).

■ HUHEZI
- Irailaren 19an (12:00etan), MUren Ikasturte Hasierako Ekitaldia izango da.
- Iraileko bigarren eta hirugarren asteetan hasiko dira Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa graduetako lau mailen ikasturteak hasiko dira.

■ MÁSTERES, EXPERTOS Y AVANZADOS
- Curso Avanzado en Hidraulica Industrial. 29/09/2014. Arrasate

■ MÁSTERES
Basque Culinary Center
- Master en cocina, técnica y producto
29/09/2014-01/04/2015

Más información: *http://www.bculinary.com/es/masters*

■ CURSOS ON LINE
- Vehículo Eléctrico 08/09/2014
- Accionamientos 08/09/2014
- Análisis de Aplicaciones I. Tracción y Accionamientos 08/09/2014
- La Función Mantenimiento 17/09/2014
- Tratamientos térmicos y ensayos mecánicos 29/09/2014
- Tracción eléctrica ferroviaria 29/09/2014

## URRIA

■ MÁSTERES
- Máster Universitario en Economía Social y Empresa Cooperativa: 1 de octubre
- Master Internacional en Intraemprendizaje e Innovación Colaborativa: 5 de octubre
- Título experto en Gobierno y Dirección Ejecutiva en Instituciones Públicas: 10 de octubre
- MBA-Máster Universitario en Dirección de Empresas: 14 de octubre
  -Mención Dirección General
  -Mención Dirección de Marketing
  -Mención Dirección Financiera
  -Mención Investigación y Acceso a Doctorado
- Curso de Adaptación al Grado en Administración y Dirección de Empresas: 16 de octubre
- MBA EXECUTIVE: 17 de octubre

■ ADITU TITULUAK
- Komunikazioa erakundeetan aditu titulua. Urriak2

■ MASTERRAK
Basque Culinary Center
- Máster en innovación y Gestión de Restaurantes 13/10/2014-08/06/2015
- Máster en pastelería de restaurante y cocina dulce 13/10/2014-24/03/2015
*http://www.bculinary.com/es/masters*

■ MÁSTERES, EXPERTOS Y AVANZADOS
- Experto en Seguridad Informática IX Edición 01/10/2014. *On line*
- Máster en Seguridad Industrial y Laboral 02/10/2014. Arrasate
- Máster en Dirección de Producción (XXIII Edición) 07/10/2014. Arrasate
- Curso Avanzado en Automatización Industrial 14/10/2014. Arrasate
- Master en Seguridad Informática 21/10/2014. *On line*

■CURSOS ADAPTADOS
- Grado en Ingeniería en Organización Industrial 10/10/2014. *On line*
- Curso Adaptación Grado en Ingeniería en Mecánica 24/10/2014. Arrasate
- Curso Adaptación Grado en Ingeniería en Electrónica Industrial 24/10/2014. Arrasate
- Curso Adaptación Grado en Ingeniería en Informática 24/10/2014. Arrasate
- Curso Adaptación Grado en Ingeniería en Sistemas de Telecomunicación 24/10/2014. Arrasate

■ CURSOS ON LINE
- Fractura de los metales: Aspectos metalúrgicos 07/10/2014
- Diseño de Experimentos DOE 14/10/2014
- Sistemas de Almacenamiento de Energía. 20/10/2014
- La Red Eléctrica 20/10/2014
- Aplicaciones de convertidores conectados a la red eléctrica 20/10/2014
- Calidad en los procesos de Fabricación. 27/10/2014
- Dimensionamiento de componentes mediante SolidWorks Simulation 27/10/2014

AGENDA


arteman
KOMUNIKAZIOA
Komunikazioan, diseinuan eta marketinean adituak.
IKUS-ENTZUNEZKOAK
DISEINUA
KAZETARITZA
INTERNET
AHOLKULARITZA
www.arteman.org




Patrocinado por:

COVAP

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

EROSKI HEINEKEN Pernod Ricard RIOJA